

K Editoriala

Gezurra badirudi ere, uda berri bat iritsi da Kutxabanken ibilbidean. Eta, betiko Nostradamusen iragarpenak gorabehera, hitzarmen bakarra eduki gabe jarraitzen dugu (Vitalen eta Kutxan hitzarmen bat dago indarrean 2013. urtearen amaierara arte). Gainera, latzena zera da, hitzarmen bakarra edukitzeko aukerarik gabe jarraitzen dugula.

Uztailaren 7a, data totemikoa, iristear da eta ikusi egin beharko da bankuaren estrategiak orain artekoari eusten dion (BBKn aplikatzea Vitalen eta Kutxan hitzartutakoa) edo "B plana" proposatzen duen, une honetan aurreikusi ezinezko ondorioak dituen plana, alegia.

Kontua da hitzarmen gabezia honek porrot kolektiboa adierazten duela. Enpresarekin ados jartzeko ezgauza izateaz gain, sindikatuen artean ere ematen du egunetik egunera areagotzen ari diren amildegia daudela.

Politika jeneralistek, gure enpresa egoera kontuan hartu gabe, konponbide zaila duen irteerarik gabeko egoerara garamatzate.

"Zenbat eta okerrago, orduan eta hobeto" estrategia irabazten ari dela dirudi egoera honetan, Kutxabankeko langileak zalantzazko lan etorkizunera eramanez.

"Jaun eta jabe" direla uste duten BBK-koen jarrera (enpresa eta sindikatuak) ulertezintasun

eta liskar estrategia bat eragiten ari da, eta hori oso urrun dago Vitalen eta Kutxan ohituta gauden hitzarmenen eta itunen arloko politikatik.

Norbaitek ordena eta zentzu ona jarri beharko luke, bai enpresan bai sindikatuetan, dudazko etorkizunera eramango gaituzten desadostasunak ekiditeko. **Gaur egungo egoeran, beharrezkoa da langile taldeak zehaztuta edukitzea lan harremanen arau argi batzuk, jaten ematen digun negozioari eustean kontzentratzeko.**

Eragikera integrazioak, Zerbitzu Zentralak murrizteak, bulegoak ixteak, lekualdaketek, zenbait bururen jarrera autoritarioek eta nagusien permisibitate adeitsuak, bankuko lehendakariaren eguzkipeko brindisek eta nola soinua hala dantza egiten duen Administrazio Kontseiluak markatzen jarraitzen dute orainaldi konplexua eta etorkizun zalantzarria.

Ea udako beroek, hondartzek eta atsedenak laguntzen duten gogoeta egiten, eta ea errotik aldatzen dugun pausoz. Bestela "hauteskundeak tokatzen dira" engainuarekin etorriko dira (sindikatuena; besteak ez ditugulako hautatzen, bestela....) eta denak endrokatuko dira.

Osasuna.

